

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Grooo!!!
Porco Bravo.
Autoekoizpena.
Iraupena: 30'59'.
10 euro.

Naturaltasunez egindako rocka, basakeria

GALIZIAKO pedigri nabarmena daukan Porco Bravo rock talde barakaldarrak harrotasunez jarraitzen du eta estreinako diskoaren aurkezpena ospakizun handia izan zen Ezkerraldeko hirian. Basurdearen ibilbidea New Yorkeko eta Eskandinaviako ezkurak jatetiki abiatzen da. Izan ere, iraganean Turbonegroren ukitu nabarmena zuten, gitarra distiratsu eta guzti. Gerora, baina, Vallecako Motociclón eta antzeko taldeekin harreman estua egin

eta rock urbanoa landu dute, makarra, heavyaren aurreko zipriztinak ere badituena. Aipatutakoez gain, La Traperako Morfi, Señor No eta Motörhead ere errebindikatzeko dituzte. Gaztelaniaz abestutako hitzak –oraindik ez dira galizieraz abesten hasi– egiazkoak dira, kalekoak, errepidekoak, min ere egiten dutenak. Eta adi zuzenekoei, basakeria hutsa dira-eta!

www.porcobravo.com

Porco Bravo

«Rockarekin gizakiak barruan daraman piztia askatzen du»

Estocolmo, Vallecas eta Barakaldo. Musika kontuan hartuta hiru zonalde horiek garrantzia al dute taldearentzat?

Gure burua oso barakaldartzat dugu eta sentimentalki Vallecasetik oso hurbil gaude, Madrilgo Barakaldo baita. Atzerriko talde asko entzun ditugu, tartean Eskandinaviakoak, baita 1970eko hamarkadako Detroitakoak eta New Yorkekoak ere.

Rocka piztia instintua al da?

Rockarekin gizakiak barruan daraman piztia askatzen du. Rocka guretzat bizitzako alderdi basatiena da, askatzeko bidea; eta hala zabaltzen dugu kontzertuetan, aurrean mila ikusle edo hiru izan.

Asko bereizten al zaitu Barakaldokoa izateak?

Industriak gainbehera egin zuen hiri batean hazi gara, merkatalgune erraldoiekin mozorrotu dutena, baina onera egin ez duena. Taldekide guztiok Ezkerraldeko punk-rocka txikitatik entzun dugu eta heavya ere zer-



txobait bai. *Bakalao* estiloko musika asko dagoen topikoa egon badago ere, hiri rockeroa izan da beti.

Hitzak errepidekoak, auzokoak, taberna-zulokoak dira. Zuen bizipenak al dira?

Kantetako hitzek asko dute gure bizitzetatik. Zertaz hitz egingo genuke bestela? Txerri-taldeaz eta inguruko lagunez.

Jainkoa hil dut. Hitz filosofiko eta existenzialistak rock-and-rollean? Ez zen, bada, rocka txantxa eta gehiegikeria?

Rocka serio hartzen dugu, ez dugu txantxarik egin nahi, baina gure alderdi ganberroena azaleratzen da. Gure hitzak ez dira barre egitekoak, erreferentzia zuzena egiten diote gainean daramagun motxilarari.

Hastapenetako Miguel Rios eta Burning errebindikatu beharko genituzke?

Miguel eta Burning bai, baina horien aurretik baita Bruno Lomas ere, Espainiako Estatuan izan den rock-and-rollaren aitzindaria, La Banda Traperera del Río-ko eta Lone Star-eko kidea, besteak beste.

Nolakoa izan da Carlos Creator-ekin grabatzea?

Carlosekin grabatzea eromena da baina, ez dakigu nola, gure onena ateratzen du. Izugarrizko pertsona eta profesionala da. ■

